

KOLORE DANTZA

Maren Herrera Labandibar

Oiartzun

Bazen behin, Andri izeneko mutil bat. Oso alaia zen. Namibia izeneko herri batean bizi zen, Afrikan, eta ezin ditu koloreak ikusi. Bere amak Nala izena zuen, eta bere aitak Menelik. Egia esan ez zuen arazo bat, bi arazo zituen: ezin zituen koloreak ikusi eta oso pobrea zen. A! Eta 13 urte zituen.

2015eko urriaren 1a, asteartea

Oiartzunen diru bilketa bat ari dira egiten, eta zozketa bat egin dute Afrikako herri batentzat. Namibia herria tokatu da, eta erabaki dute familia bakoitzari 10.000 euro ematea.

Dirua familia guztiei iritsi zaie eta Andriren familia oso pozik jarri da. Orduan, New Yorkera joan dira. Zergatik New Yorkera eta ez beste toki batera? Familia informatu da koloreak ikusten lagunduko dion toki bat dagoela konkretuki New Yorken.

Ikastolara ere joaten da eta lagun oso on bat egin du, Nala izena du eta afrikarra da. Andrik esan dio bere amak ere Nala izena duela. Nala eta bere familia Afrikatik orain dela hiru hilabete etorri ziren. Andriri poz handia eman dio Afrikako beste bat ezagutzeak, baina oraindik ez ditu koloreak ikusten. Jolas garaia oraintxe hasi da, Andrik lagunari esan dio ez dituela koloreak ikusten eta orduan bere lagunak lagundu egin dio. Jolas garai bitartean esan dio Nalak Andriri berak dantza garaikidea egiten duela. Andrik galdetu dio ea zer den dantza garaikidea eta Nalak esan dio dantza ikasteko ikastola moduko bat dela.

Jolas garaia eta gero, matematika, musika eta ingurunea eduki dituzte. Bazkalorduren ondoren, Nalak dantza garaikidea dauka eta Nalak irakasleari galdetu dio ea Andri etorri daitekeen klasea ikustera, zein dantza mota den jakiteko. Irakasleak baietz esan dio. Irakasleak baietz esan ondoren, Nalak Andriri galdetu dio ea dantza mota hori ikusi nahi duen. Andrik pozez baietz esan dio. Dantza asko gustatu zaio. Atsedean bat hartu dutenean Andrik galdetu dio irakasleari ea dantza hori probatu dezakeen, eta baietz erantzun dio. Andrik oso ondo dantzatu du. Ikastola eta gero Andrik galdetu die bere gurasoei ea dantza garaikidera apuntatu daitekeen. Biek baietz esan diote. Hirurak hitz egiten ari diren bitartean, Nalak deitu egin dio. Nalak esan dio toki berri bat aurkitu duela bere begientzat: COLORES izena du. Ziztu bizian joan dira COLORES tokira. Hor esan diote lentilla

berezi batzuk probatzeko. Eta lentilla horiek balio dute!!! Bere ama eta bere familia asko poztu dira, eta bere lagun Nala ere bai.

2020ko irailaren 1a, astelehena

Orain Andrik 18 urte ditu, dantza garaikidetik aspaldian desapuntatu da, baina esan diote dantza lehiaketetan apuntatzeko. Andrik bideo bat bidali du dantza lehiaketa horretara apuntatzeko, eta bitartean beste dantza eskola batera apuntatu da, hobeago batera. Baietz esaten bazioten desapuntatuko zen noski, lehiaketa horiek egiteko, baina ezetz esaten badiote hor geldituko da.

Batzuk aukeratu dituzte, eta horietako bat Andri da. Andri finalera iritsi zen eta... espero ez zuena gertatu zen: bere lagun Nalaren kontra egingo zuen lehiaketa. Andri oso urduri dago, baina ahal duen hobekien egingo du. Andrik irabazi du!!!

2029ko urtarrilaren 14a, astelehena

Andrik 27 urte ditu, eta orain dantza eskola profesional baten zuzendaria da. Oso pozik dago. Berarentzat ikasleek oso ondo dantzatzen dute, eta, noski, lehiaketa bat egingo dute.

LEHIAKETA EGUNEAN:

Andri oso urduri dago, eta berak erabaki du dantza oso koloretsua izatea. Trajeak koloretsuak,

agertokiko atzealdea ere kolorez, apaingarriak baita ere... Eta zergatik hain koloretsuak? Berak koloreak ikusi dituenetik koloreak asko gustatu zaizkio eta leku guztietan koloreak nahi ditu. Ordu batzuk pasa ondoren beraien taldearen izena esan dute:

“FORMA TALDEA AURRERA!!”

Ikasle guztiak urduri... Dantzan gehiena egiten dutena formak dira. Adibidez: borobil forma, denak lotuta borobil bat egiten, piramide bat bata bestearen gainean... Puntuazio altuena daukanak irabazten du. Zein taldek irabazi ote du?

IRABAZLEA FORMA TALDEA DA. Kopa handi bat jaso dute eta oso pozik jarri dira.

Nala, berriz, ez zen joan dantzaren bidetik, zinema zuzendaria da. Pelikula asko egin ditu, adibidez: *Titanic*, *Lehoi Erregea*, *Piratas del Caribe*, *Star Wars*, *Harry Potter* etab. Baina hala ere biek elkar ikusten jarraitzen dute, eta Nala bere lanarekin oso pozik dago. Egun oso garrantzitsu batean, OSCAR SARIA eman zioten.

Andrik hainbeste dantza irabazi dituenek, orain diru asko dauka. Eta zer egin du diru guztiarekin? Berari lagundu zioten bezala, berak ere koloreak ikusten ez dituztenei lagundu.